

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

Koronabirusari aurre egiteko neurri zehatzak

2021eko urtarrilaren 12an eguneratutako dokumentua

Euskadi, bien común





Aurkezpena

Dokumentu honen helburua da, ohiko galderen erantzunen zerrenda baten bidez, honako Dekretuen edukia hobeto ulertzea eta interpretatzea:

·926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, SARS-CoV-2 sistemak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duena (2020ko urriaren 25eko BOE, 282. zk.).

·44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. (248. zk., ostirala, 2020ko abenduaren 11).

·47/2020 DEKRETUA, abenduaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

·1/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>

Dokumentu honen lehen edizioa 2020ko urriaren 26koa da. Hau urtarrilaren 12ko zazpigarren edizioa da eta herritarrek planteatutako zalantza berriekin eguneratu da. Galdera eta erantzun berriak sartu dira, eta erantzun batzuk zehaztu edo zuzendu dira, hobeto uler daitezzen.

Dokumentua egitura honen arabera ordenatuta dago:

·Oinarrizkoa galderak	3. orr.
·Mugikortasuna	4. orr.
·Ostalaritza	7. orr.
·Kirola	9. orr.
·Besteak	12. orr.



Galdera-erantzunak

OINARRIZKO GALDERAK

1. Indarrean jarraitzen al du sei pertsonatik gorako taldeetan espazio publiko eta pribatuetan egoteko muga?

Bai, salbuespenik gabe.

2. Indarrean jarraitzen al du Euskal Autonomia Erkidegoan sartzeko eta irteteko muga?

Bai.

3. Lurralde Historikoen araberako konfinamendu perimetrala itzuli da Euskadira?

Bai. Urtarrilaren 13ko 00:00etatik aurrera, bizileku duten Lurralde Historikoko pertsonen sarrera eta irteera murrizten da, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenekin, behar bezala justifikatuta, eta Lurralde Historiko desberdinetako udalerrri mugakideen arteko mugikortasuna baimentzen da, salbu eta bizileku duten udalerrian edo mugakidean kasu positiboan intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanlekiko 500 edo gehiago bada

4. Justifikatu egin behar al dira irteera horiek?

Bai. Abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuan eta dokumentu honen Eranskinean erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat eskaintzen da, eta eredu hori erabil daiteke lekualdaketaaren arrazoia egiaztatzeko, beste modu batetik justifikatu ezin bada.

5. Udal-konfinamendua itzuli da?

Covid-19aren kasu positiboan azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan soilik mugatuko da pertsonen sarrera eta irteera udalerriarren barrutian.

6. Badago salbuespenik udalerriarren barrutitik irteteko edo sartzeko, udalerrriak 100.000 biztanleko 500tik gorako intzidentzia-tasa metatua gaingitzen duenean?

Soilik urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenen bat bada, betiere behar bezala justifikatuta badaude.

7. Nola jakin dezaket noiz dauden nire udalerrria edo beste bat konfinatuta?

Osasun Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus>), astero, astelehenetan eta ostegunetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bat zabalduko da, udalerriarren araberako tasen zerrendarekin, eta erreferentzia eraginkorra izango da hurrengo egunetik aurrera.

8. Indarrean al dago 22:00etatik aurrera gauez zirkulatzeko muga?



Bai.

9. Eskola kirola baimenduta al dago?

Covid-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, eskola-kiroleko entrenamenduei berrekin ahal izango zaie, eta gehenez ere sei laguneko taldetan antolatuta. Taldea beti pertsona berek osatuko dute, eta ezingo dira aldagelak erabili. Horretarako behar diren udal-instalazioak prest daudenean berrekingo zaie, betiere.

10. Nola erabili behar da maskara kirola egiterakoan?

Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, jarduera fisiko handiko aparteko uneetan, eta lehiaketetan.

MUGIKORTASUNA

11. Joan al naiteke beste udalerri batera erosketak egitera nire udalerria gune gorrian badago (100.000 biztanleko 500 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua du)?

Ez. Ez dago baimenduta 100.000 biztanleko 500 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietatik irtetea edo sartzea, funtsezko erosketa eta zerbitzuetarako izan ezik, baldin eta udal-konfinamenduak ukitutako udalerrriak ez baditu horiek, edo behar bezala justifikatutako urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik ez bada.

12. Irten al naiteke Euskaditik arrazoi justifikatuengatik?

Bai, baimenduta daude behar bezala justifikatutako lekualdaketak, baldin eta urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenetako batengatik gertatzen badira.

13. Sar naiteke udalerri mugakidean, beste Lurralde Historiko batean egon arren? Eta beste Autonomia Erkidego batean badago?

Udalerri mugakidea beste Lurralde Historiko batean badago, bai, gainerako udalerrietako baldintza berberetan. Ezin da udalerri mugakidera sartu beste Autonomia Erkidego batean badago, EAetik irtetea mugatuta baitago, 926/2020 Errege Dekretuan jasotako salbuespenetan izan ezik.

14. Baimenduta al dago senideak bisitatzeko beste udalerri batera joateko debekua?

Bizileku duen Lurralde Historiko berean bakarrik daude baimenduta senideak bisitatzeko joan-etorriak.

Ezin da beste Lurralde Historiko batera joan, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik izan ezik.

15. Joan al daiteke beste Lurralde Historiko batera pertsona bat aireportura, geltokietara eta abarretara jasotzera edo eramatera?



Bai.

16. Eraman al dezaket semea bere kirol-jarduerara, baldin eta 100.000 biztanleko 500 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duen udalerrri batean badago?

Ez. 100.000 biztanleko 500 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietan, udal-konfinamendua aplikatuko da, eta ezin izango da inor sartu edo atera udalerrriaren mugatik, justifikatutako kasuetan izan ezik. Gainera, herri horietan, taldekako kirola bertan behera geratuko da.

17. Dibortziatua naiz. Dibortzio-epaiaren arabera, astean bitan egon naiteke seme-alabekin; baina bizi naizen udalerrria ez den beste herri batean bizi dira. Bisita hauek egitera joan naiteke?

Seme-alabak zaintzeko joan-etorri bat, dibortzio-epai batean ezarritako araubideari jarraikiz, baimenduta dago, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan jasotako salbuespenetako bat delako, zehazki, 2. artikuluan "k) antzeko beste edozein jarduera, behar bezala egiaztatua".

18. Nire lurralde historikoa ez den udalerrri bateko finka batean dauden animalia batzuk zaindu eta elikatu behar ditut. Mugitu naiteke? Nola justifikatzen dut?

Animaliak artatzeko joan-etorri bat baimenduta dago, Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan jasotako salbuespenetako bat delako; zehazki, 2. artikuluko "j) ezinbesteko kasua". Animalien jabetza egiaztatzen duen edozein agiriren bidez justifika daiteke, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, arreta zein helbidetan emango zaien zehaztuta. (Ikus Eranskina)

19. Nola justifikatuko litzateke agintaritza baten aurrean beste Lurralde Historiko batera joan-etorri baten motiboa adinekoen edo adingabeen zaintza dela?

Pertsona arduradunak emandako egiaztagiraren bidez; horretarako, familia-lotura frogatu beharko da eta zainduko den pertsonaren identifikazio-datuak eman beharko dira. Era berean, zaintzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatu daiteke, artatuko den pertsonaren helbidea eta telefonoa zehaztuta. (Ikus Eranskina)

20. Joan al naiteke beste udalerrri bateko tabernara, nireak 100.000 biztanleko 500 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua badu?

Ez. 100.000 biztanleko 500 edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietan, mugatu egiten da pertsonen sarrera eta irteera udalerrriaren mugetatik.

21. Durangon bizi gara, eta ohiko ile-apaindegia Bilbon dugu. Joan gaitzke haraino?

Bai. Bizilekuaren Lurralde Historikoaren barruan mugitzea baimenduta dago.



22. Artziniegakoa naiz, eta Bilbora joan ohi naiz erosketak eta bestelako jarduera sozio-ekonomikoak egitera. Jarrai dezaket egiten beste Lurralde Historiko bat bada ere?

Abenduaren 23ra arte, ez. Bizi zaren Lurralde Historikoaren barruan bakarrik mugi zaitezke, kasu honetan, Araban.

23. Baimenduta al dago oraindik Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzea Euskaditik kanpo lekualdatzeko jatorria eta helmuga duten pertsonentzat?

Bai, igarotzea baimenduta dago, baina ez beste inolako jarduerarik.

24. Kantabriakoa naiz, Bilbotik hegaldi bat dut, eta Autonomia Erkidegotik sar naiteke edo atera naiteke arrazoi horrengatik?

Joan nahiz etorrian, Euskal Autonomia Erkidegotik pasa daiteke bere helmuga Autonomia Erkidego honetatik kanpo badago; baina ezin du beste jarduerarik egin Euskal Autonomia Erkidegoan.

25. Joan al naiteke Euskaditik kanpo dagoen nire bigarren etxebizitzara?

Ez, 926/2020 Errege Dekretuan autonomia-erkidegoen arteko mugikortasuna mugatzeko aurreikusitako salbuespenen batean sartzen bada salbu.

26. Joan al naiteke Autonomia Erkidego berean dagoen bigarren etxebizitza batera?

Ohiko bizilekua duen udalerriaren Lurralde Historiko berean badago bakarrik.

27. Baimenduta al dago adinekoen egoitzetara joatea?

Bai, betiere zentroak berak baimendutako bisitak badira.

28. Baimenduta al dago espetxeetara joatea?

Bai, baina, horretarako, Espetxeetako Agintaritzak emandako baimen egokia beharko da.

29. Nola arautzen dira Euskadin enklabeak diren udalerriei dagozkien gaiak?

Enklabeak diren udalerriek inguratzen dituen Lurralde Historikoaren berezko tratamendua jasotzen dute (Trebiño, Villaverde...).

30. Pisu bat dut alokatuta beste autonomia-erkidego batean eta giltzak batzera joan behar dut, errentariak etxea utziko baitu. Irten naiteke erkidegotik?

Jarduera hori atzeratzerik ez badago, ezinbesteko kasutzat jo daiteke.



31. Nola justifika dezaket joan-etorrien arrazoa?

Beste frogabiderik ez dagoenean, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da. Adierazpen hori sinatutako dokumentu bat da, eta adierazten du Dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, mugikortasun-mugaren salbuespenak justifikatzeko. (Ikus Eranskina)

32. Zer gertatzen da dagoeneko bidaiatzeko hegazkin-txartela erosi badugu? Baliogabetu egin behar dugu?

Bidaiaren arrazoiaren arabera:

–Bidaiaren arrazoa aisialdia bada, ezin da bidaiatu.

–SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan jasotako salbuespenetako batengatik bada, hegaldiari eutsi ahal izango zaio, betiere behar bezala justifikatzen bada.

33. Atera dezakegu maskota 22:00ak ondoren?

Ez, ezin dugu maskota atera 22:00etatik aurrera eta 06:00ak arte. Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan jasotako salbuespenengatik soilik atera daiteke maskota batekin; esate baterako, larrialdiko motiboren batengatik albatariarenera eramatea.

34. Gaueko ordutegian pertsonen zirkulazio-askatasunaren muga 22:00etan bada ere, garraio publikoa 23:00etan amaitzen da. Horrek san nahi du autobusa har dezakedala 22:00etatik 23:00etara?

Urriaren 25eko Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan jasotako salbuespenetako batengatik soilik erabili ahal izango da garraio publikoa 22:00etatik aurrera. Adibidez, osasun-arrazoiengatik, larrialdi-arrazoiengatik edo lanetik irteteko lan-ordutegiaren baldintzapean, besteak beste.

OSTALARITZA ETA JOKO ETA APUSTUEN LOKALAK

35. Ostalaritzako zein establezimenduk ireki ditzakete ateak?

5.000 biztanletik gorako udalerrietan, jendearentzat berriz irekitzeko, beharrezkoa izango da Covid-19ak eragindako kasu positiboek azken 14 eguneko Intzidentzia Tasa Metatua 500 baino gutxiagokoa izatea 100.000 biztanleko.

5.000 biztanletik beherako udalerrietan, tokiko egoera epidemiologikoak edo kutsatze-agerraldiek hala eskatzen dutenean, Osasun Sailak bidezko neurriak hartuko ditu establezimenduak ixteko.

Osasun Sailaren webgunean ([https:// www.euskadi.eus](https://www.euskadi.eus)), astero, astelehenetan eta ostegunetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bat zabalduko da, udalerrietako tasen zerrendarekin.

Nolanahi ere, 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 kasu baino gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietan, eskaerak prestatu ahal izango dira lokalean jasotzeko, betiere aldeztu aurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte, edo 22:00ak arte etxetik zerbizua eskaintzeko.

**36. Zer zerbitzu eman dezakete ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek?**

Aire zabaleko terrazetan zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte, eta barruan ehuneko berrogeita hamarreko edukiera izango dute. Nolanahi ere, mahai desberdinetako aukien artean gutxienez metro eta erdiko distantzia dagoela ziurtatu beharko da.

37. Zer ordutegi dute ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek?

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek, zerbitzuguneetako zerbitzuek izan ezik, gehienez ere 20:00etan itxi beharko dute, eta ezingo dute 06:00ak baino lehen ireki.

38. Zerbitzuguneetan dauden ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak irekita egon daitezke 20:00etatik aurrera?

Ezarritako erregimenaren arabera egongo dira irekita, eta 20:00etatik 06:00etara bitartean egon ahal izango dira irekita, baina iragaitzazko erabiltzaileentzat bakarrik.

39. Itxi al dezaket 20:00etan establezimenduaren barrualdea eta jarraitu terrazetan bezeroei arreta ematen?

Ez. Establezimenduen barrualdea eta kanpoaldea 20:00etan itxi behar dira, bezeroak ateratzea barne.

40. Jaso eta banatu al daitezke janari-eskaerak ostalaritza-establezimenduetan?

Bai. Eskaerak 21:00ak arte entregatu ahal izango dira, establezimenduan bertan hitzordua eskatuta, eta, edonola, itxita egon beharko da jendaurreko beste edozein zerbitzutarako. Etxez etxeko banaketa 22:00ak arte egin ahal izango da.

41. 100.000 biztanleko 500 kasu edo gehiagoko intzidentzia-tasa metatua duten udalerrietan ere bai?

Bai.

42. Zenbat lagun egon gaitezke mahai bakoitzean?

Mahai bakoitzeko bezero-taldeak ezin izango dira sei baino gehiagokoak izan. Lau lagunentzako mahai prestatuetan, lau bezero bakarrik bildu ahal izango dira, eta bi mahai batu ahal izango dira gehienez sei laguneko talde baterako. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzen direnean izan ezik.

43. Ikus al dezakegu taldean futbol partida bat taberna baten barruan?

Lehendakariaren abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuak berariaz bazterten du establezimenduen barruan telebistaz eskaintzen diren kirol-ekitaldiak taldean ikustea.

44. Baimenduta al dago barran kontsumitzea?

Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea, bai barruan, bai kanpoan, erabiltzaileek mahaian eserita kontsumitu beharko dute. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzen direnean izan ezik.



45. Baimenduta al dago ostalaritza-establezimenduetan jolas-, joko- edo apustu-makinak erabiltzea?

Establezimendu horietan ezin da jolas-, joko- edo apustu-makinarik erabili.

46. Zein baldintzapean irekitzen dira berriro joko- eta apustu-establezimenduak?

Joko- eta apustu-jarduerak banaka egin beharko dira, eta pertsonak eserita egon beharko dute. Gehienez sei laguneko taldeak izango dira. Jokalarien artean, 1,5 metroko distantzia gorde beharko da. Joko-posizio bateko parte-hartzaileen aldaketa bakoitzean bermatu beharko da erabilitako espazioaren garbitasuna eta ez dela objekturik trukutzen.

47. Zer ordutegi dute joko- eta apustu-establezimenduek?

Establezimendu horiek, gehienez ere, 20:00etan itxi beharko dira, bezeroen hustea barne, eta ezingo dira 06:00ak baino lehen ireki jendearentzat.

48. Baimenduta al dago ostalaritza-establezimenduetan jolas- edo apustu-makinak erabiltzea?

Establezimendu horietan ezin da jolas- edo apustu-makinak erabili.

49. Txokoak, elkarte gastronomikoak, lonjak eta antzekoak ireki al daitezke?

Ez. Txokoak, elkarte gastronomikoak, lonjak eta antzekoak itxita egongo dira.

50. % 50eko gehieneko edukiera hoteletako eremu komunetan (jantokia, kafetegia, etab.) aplikatzen den 30 pertsonako kopurua baino handiagoa izan daiteke?

Dekretuak gehienez ere % 50eko edukiera ezartzen du kanpin-hotelen eta turismo-ostatuaren eremu komunetarako, eta gune horietan ezin da inoiz 30 pertsonako muga gainditu aldi berean eta pertsonen arteko 1,5 m-ko distantzia errespetatuz.

Ostalaritza-instalazio horietako gainerako aretoek edo jantokiek % 50eko gehieneko edukiera errespetatu beharko dute, beren azaleraren arabera, eta jantokien kasuan, jatetxe-zerbitzuei aplikatu beharreko araudia errespetatu beharko dute, edo, bestelako ekitaldiak antolatuz gero, barne-espazioetako bilerei aplikatu beharrekoa.

Nolanahi ere, gogorarazten da, 20:00etatik aurrera, hotelek eta bestelako ostatuak ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak ostatu hartutako bezeroei soilik eskaini ahal izango dizkietela.

KIROLA

51. Baimenduta al dago eskola-kirola?

Covid-19aren kasu positiboaren azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, eskola-kiroleko entrenamenduei berrekin ahal izango zaie, eta gehienez ere sei laguneko taldetan antolatuta. Taldea beti pertsona berek osatuko dute, eta ezingo dira aldagelak erabili. Horretarako behar diren udal-instalazioak prest daudenean berrekingo zaie, betiere.

**52. Eta eskola-kiroleko lehiaketa?**

Ez.

53. Ikasleek aldagelak erabil ditzakete?

Ez. Aldagelak ezin dira erabili eskola-kirolean.

54. Taldean kirola egin dezaket?

Covid-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta aldi berean 6 laguneko taldeetan, gehienez ere.

Covid-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan, bertan behera geratzen da taldeko kirol-jarduera oro, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta, beraz, egin ahal izango dira lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak, gimnasioetan, kirol-klubetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak, eta jarduera fisikoa eta kirol-jarduera, aire zabalean eta gehienez sei laguneko taldeetan.

55. Irten al daiteke korrika egitera edo bizikletan taldean ibiltzera?

Federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta aldi berean 6 laguneko taldeetan, gehienez ere.

56. Kendu al dezaket maskara, bakarka, hiri-inguruetan kirola egiten dutan bitartean?

Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, jarduera fisiko handiko aparteko uneetan, eta lehiaketetan.

57. Joan naiteke Lurralde Historikoko beste udalerrri batera jarduera fisikoa aire zabalean egiteko?

Bai, zure Lurralde Historikoko edozein udalerritarra joan zaitezke jarduera fisikoa aire zabalean egiteko, Covid-19ko kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiago dutenetara.

Ezin duzu joan Covid-19ko kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiago den udalerritarra.

58. Aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke?

Bai, gehieneko edukieraren ehuneko 30eko okupazioarekin. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira. Maskara nahitaez erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren



bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

59. Zer ulertzen dugu kirolari erdi profesional diogunean?

Egutegi ofizialeko Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan eta Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariak dira, guztiak kategoría absolutuan, Eta Estatuko edo nazioarteko lehiaketetan dagokien kategoría absolutua baino behezagoko kategorian. Atal honetan kategoría absolutuko maila goreneko bertoko kirol-lehiaketak sartzen dira.

60. Beste herri bateko kiroldegira joan naiteke kirol-jarduera bat egitera?

Bizi zaren Lurralde Historikoko edozein herritara joan zaitezke.

61. Baimenduta al dago ehiza-jarduera bere modalitate guztietan, bai eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza ere, modalitate guztietan?

Bai, bizi zaren Lurralde Historikoko udalerrri guztietan. Praktika hori beste Lurralde Historikoko batetik igarotzen den udalerrri mugakidean ere egin daiteke.

Nolanahi ere, beti errespetatu behar da pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-distantzia, eta nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

62. Publiko gisa joan naiteke kirol-ekitaldi batera?

Ez. Debekatuta dago jendeak kirol-ekitaldietara joatea.

63. Gimnasio bateko makina-gelan kirola egin dezaket?

Bai, banaka, maskara erabiliz, segurtasun-distantzia mantenduz eta baimendutako gehieneko edukiera errespetatuz.

64. Eskolak edo jarduerak taldean eskain daitezke?

Gimnasioetan, kirol-klubetan, igerilekuetan eta kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak bakarrik egin ahal izango dira, baldin eta maskara erabiliz egiten badira, jarduera fisiko biziko aparteko uneetan izan ezik, 6 pertsonako taldeetan gehienez, eta edukiera ehuneko 50era mugatuta badago.

65. Kirolari federatu bat lehiatu daiteke?

Covid-19aren kasu positiboan azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, lehiaketa profesionalean eta federatuan murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak egin ahal izango dira.

Covid-19aren kasu positiboan azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan, bertan behera geratzen da taldeko kirol-jarduera oro, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta, beraz, egin ahal izango dira lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak.



BESTEAK

66. Musika eta abesbatzen entseguak debekatuta daude oraindik?

Etenda jarraitzen dute ahots-musikako entsegu eta jarduera kolektibo ez-profesionalek, hezkuntza arautuan daudenen kasuan izan ezik.

67. Eta dantza taldeenak?

Dantza-talde ez-profesionalen entsegueri berrekitea baimentzen da, eta, nolana ere, zorrotz errespetatu behar dira pertsonen arteko segurtasun-distantziaren, maskara erabiltzearen eta kontaktu fisikorik gabeko sei laguneko taldeen prebentzio-baldintzak.

68. Zer edukiera errespetatu behar du saltoki txiki batek?

150 metro koadro baino gutxiagoko establezimenduek ezingo dute edukieraren ehuneko 60 gainditu.

69. Eta azalera handia bada?

150 metro koadrotik gorako azalera duten merkataritza-establezimenduek edukieraren ehuneko 40ko gehieneko edukiera baimendua izatera igaroko dira, eta, hala badagokio, gehieneko edukiera hori bera aplikatuko zaie merkataritza-guneei solairu eta saltoki bakoitzean, haien azalera edozein dela ere. Merkataritza-guneetako arduradunek neurri nahikoak jarriko dituzte muga hori betearazteko.

70. Joan gaitezke ikastera bizitoki dugun udalerrian ez dagoen zentro batera? Nola justifikatuko dugu?

Egoera hori berariaz jasota dago urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1.c artikuluan, hau da, *Unibertsitateetara, ikastetxeetara eta ikastetxeetara joatea, hezkuntza-eskolak barne*. Baliozkoa eta nahikoa den edozein dokumenturen bidez egiaztatu ahal izango da.

71. Supermerkatuek edo elikagaien dendek sal dezakete alkohola 21:00etatik aurrera? Eta beranduago ixten badute?

21:00ak eta 08:00ak artean ezingo da alkoholik saldu. Era berean, ezin da bide publikoan kontsumitu.

72. Joan gaitezke bizitoki dugun udalerritik kanpo egiten den hileta, hil-beila edo ehorzketa batera? Eta Autonomia Erkidegotik kanpora?

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren hileta, beila edo ehorzketetara joan daiteke. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo gertatzen direnetara bigarren mailara arteko senideak joan ahal izango dira.

Nolana ere, atal honetan ezarritako neurriak bete behar dira:



-Hil-beiletan, 30 pertsona batu ahalko dira, gehienez, aire zabaleko espazioetan, eta 6, espazio itxietan. Bertaraten den pertsona-kopurua txikiagoa izanez gero, ezingo da baimendutako edukieraren % 50 gainditu.

-Hildakoaren ehorzketan edo haren errausketarako agurrean, 30 pertsona egon ahalko dira, gehienez, betiere espazio irekian egiten bada. Espazio itxian eginez gero, gehienez 10 pertsona batu ahalko dira, eta, nolahi ere, pertsonen arteko distantzia gorde beharko da.

-Kasu guztietan erabili beharko da maskara.

73. Gaueko zer ordutara arte egongo da garraio publikoa?

Hiru lurralde historikoetako eremu txikiagoko garraio publikoaren azken irteera 23:00etan izango da. Gidaridun taxia edo ibilgailua izan ezik.

74. Jan edo edan daiteke garraio publikoan?

Bidaia-denbora bi ordutik beherakoa bada, ezin da, baina bai edan. Nolanahi ere, gaur egungo testuinguruan, berriaz ez da gomendatzen alkohol-kontsumoa garraio publikoan.

75. Badago okupazio-mugarik garraio publikoan?

Ez, garraio publiko eta pribatuetan ibilgailuak duen plaza adina pertsona joan ahalko da, betiere maskara jantzita.

76. Zer gertatzen da kultur ekitaldi batera joan eta hau 22:00ak baino beranduago amaitzen bada?

Jarduera edo ekitaldi kultural edo sozialik ezingo da 21:00ak baino beranduago amaitu. Ordubete izango da (22:00ak arte) etxera itzultzeko.

77. Egin al daitezke erkidegoen bilerak edo jabeen batzarrak?

Bilerak egin ahal izango dira, betiere topaketak egiten diren lokaletan ezarritako edukiera-mugak betetzen badira. Hala ere, bertaratutakoen joan-etorriei dagokienez, kontuan hartu beharko dira indarrean dauden mugikortasun-mugak, eta beti errespetatu beharko dira.

78. Akziodunen edo kooperatibisten batzarretara jo daiteke?

Bai. Horrelako ekitaldietara joatea baimentzen da, inolako lurralde-mugarik gabe. Bana-banako dokumentu bat eraman beharko da, erakunde antolatzaileak beteta eta igorrita, joan-etorri hori justifikatzeko.

79. Baimenduta al dago arrazoi sindikalengatik, alderdi politikoen, enpresa-elkarteen eta antzekoen jarduerengatik lekualdatzea?

Bai. Jarduera instituzional edo profesionaltzat jotzen baitira.

**80. Erre daiteke bide publikoan?**

Bi metroko gutxieneko distantzia gordetzerik badago bakarrik.

81. Derrigorrezkoa al da erabilera publikoko establezimenduak eta lekuak aireztatzea?

Erabilera publikoko establezimenduek eta tokiek aireztapen iraunkorra bermatu beharko dute egunean zehar, eta lokalak ireki eta ixten direnean ere bai. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da, eta airearen birzirkulazioa saihestu. Aireztapen- eta girotze-sistemek indarrean dagoen araudiaren arabera eraikinetan eta lokaletan jarduteko eta mantentze-lanak egiteko gomendioak bete beharko dituzte.

82. IAT nire ibilgailura pasatu behar badut eta izapidea 22:00etatik aurrera amaitzen badut, baimenduta dago lekualdatzea?

Bai, itzulerako bidaia zuzenean egin ahal izango da bizilekura, baldin eta egindako izapidea egiaztatzen bada.

83. Herritar batek, zirkulatzeko baimenduta dauden ordutegiak betez gero, bizilekua duen udalerria ez den beste udalerrri batean igaro al dezake gaua karabanan?

Indarrean dauden ordutegi-muga eta desplazamendu-muga guztiak betetzen baditu, eta karabanentzat baimendutako lekuetan aparkatzen badu.

ERANSKINA

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA KANPOKO
JOAN-ETORRIAK JUSTIFIKATZEKO, LEHENDAKARIAREN
ABENDUAREN 10EKO 44/2020 DEKRETUAREN ESPARRUAN**

_____jn/ad, _____NAN zenbakiarekin,
 Helbidea: _____, Telefonoa: _____, Helbide
 elektronikoa: _____.

Erantzukizunez adierazten du lekualdatzeko arrazoia honako hau dela:

_____ (e)n, 2020ko _____ ren _____ (e)an.

SIN: _____